

Aranzadi elkar-tearen egoi-tzan egin du-gu hitzordua Karlos Almor-za Arrieta his-torialariarekin (Andoain, 1959). Bere ikerlari jardunean beste hainbat arlo ere landu dituen arren, egiptologiari es-kaini dio, batez ere, bere ibilbi-de akademikoa. Doktoretza te-sia egiteko "Faraioen garaiko egipzieraren eta euskararen lan konparatiboen historia" aukeratu zuen gaitzat, adibi-dez, eta egiptoera-euskara hiz-tegia sortu zuen. Hori bakarrik ez, hieroglifikoen hizkuntza hobeto ulertzeko mahai-jolas bat ere sortu zuen –"Egiptoar hieroglifikoen sekretua? Nik ezagutzen dut hieroglifikoen sekretua"–, antzinako egiptoarrek idazteko zuten modua euskaraz errepikatzeko aukera ematen duena.

Lan horietan bertatik berta-ra ikus daiteke Almorzaren ekarpen nagusia. Izan ere, egiptologia irakasteko metodo tradizioaletan ez bezala, an-doaindarrak hasiera-hasiera-tik nabarmendu du egiptoar-ren antzinako idazkera-mota hieroglifikoan idazten diren baina irakurtzen ez diren hainbat hieroglifiko daudela, elementu hori hizkuntzaren definiziora ekarrita. Eta horre-kin batera, aldez aurretik beste inork erabili ez duen metodo lagungarri bat aplikatzen du: irakurtzen ez direnak kolore desberdinez nabarmentzea (determinatzaileak berdez eta laguntzaile fonetikoak, gorriz). Almorzak dio bere helburua dela egiptoerara jakin-minez hurbiltzen den pertsona oro «ate onenean» jartzea, mundu horretara sarbidea erraztea.

Ildo horretatik, Jean-Fra-nçois Champollion okzitania-



Karlos Almorza, Egiptora egindako bidaia batean, Luxor hiriko Esfingeen Etorbide famatuan. Karlos ALMORZA

EGIPTOERA EZAGUTZEN

Hieroglifikoen hizkuntza euskaratik eta euskaraz deskubritzeko mahai-jolasa

📁 **EGIPTOLOGIA** / Asier AIESTARAN

Karlos Almorzak lan handia egin du azken 15 urteetan antzinako egiptoera, eta bereziki idazkera hieroglifikoa, euskaldunei gerturatzeko. Egiptoera-euskara hiztegia osatu eta hieroglifikoa hobeto ulertzeko mahai-jolas bat ere asmatu du. Oinarrian, gako nagusi bat: badira idatzi, bai, baina irakurtzen ez diren hieroglifikoa.

rrak, 1822an hieroglifikoak lehen aldiz deszifratu zituen ikerlariak, definizio hau erabili zuen: «Idazkera hieroglifikoa oso sistema konplexua da; izan ere, aldi berean, figurati-boa, sinbolikoa eta fonetikoa baita, testu batean, esaldi ba-tean, baita hitz batean ere». Al-morzak, aldiz, beste aldaera hau proposatu du: «Egiptoko idazkera hieroglifikoa sistema konplexua da, eta testu, esaldi zein hitz bakar batean erabil ditzake idazten eta irakurtzen diren hieroglifikoak (piktogra-mak, ideogramak eta fonogra-mak) edota idatzi bai baina irakurtzen ez direnak (lagun-